

Ekaitza lurmuturrean



Burezurren lurmuturra oso arriskutsua da handik igarotzen diren itsasontzientzat. Horregatik, mutil batek eta haren aitak gauero-gauero pizten dute sua, itsasoan dabiltzanak arriskuaz oharrarazteko.

Sua pizturik mantendu nahian ari nintzela, ontzi baten itzal iluna sumatu nuen itsasaldean, eta saltaka joan nintzen aitarengana:

–Aita, aita! Itsasontzi bat hurbiltzen ari da Burezurren lurmuturrera, eta gure suak indar gutxi dauka!

Aita zur eta lur geratu zen nire hitzak entzundakoan, eta aurpegia mudatu zitzaion hondar zuria baino zurbi-lagoa geratu arte.

–Goazen! –egin zidan oihu.

Ordurako berandu zen. Lurmutur aurreko itsas zurrunbiloak bereganatu zuen itsasontzia, eta trapu zahar bat bezala astintzen ari zen.

Ontziko marinela oihuka eta garrasika ari ziren. Han ziren, han, errezoak eta hiraoak nahasian!

Oihuak, hasperenak eta negar-zotinak entzuten genituen ilunpean.

–Laguntza! Laguntza! –egiten zuten deiadar gauaren erdian.

Halako batean, karraska izugarria, ontziaren danbatekoa labarren kontra, ohol hautsien kirrinka, arrautza-oskol erraldoi baten azal kraskatuaren danbarra... Gero, isiltasun osoa. Herioaren isiltasuna.

Ordurako aita abantada batean jaitsi zen hondartzaraino, labarreko bidean behera, eta ni ere haren atzetik joan nintzen ilunpetan bideko oztopoekin estropezu eginez, edozein bazterretan muturrak hausteko moduan.

Hondartzaren aztarrenik ez zegoen. Itsaso haserreak ia erabat estalita zeukan hondarra, eta olatuen bitsa labarren oineraino iristen ziren. Ilunpean ez genuen geure begien aurretik harantz ikusten, eta itsasoan isiltasuna zen nagusi.

Ohol zaharrak eta ontziko tresneria apurrak gure oinetara ekartzen hasi ziren olatuak. Soka bustiak, barrika hondatuak, oihal urratuak...

Ordu laurden bat-edo pasatu zenean, eta gure begiak iluntasun etsigarri hartara ohitu zirenean, oholtza bat ikusi genuen. Seguru asko itsasontziko kamainaren bat izango zen. Haren gainean, uretan galdutako marinela haletako bat zegoen, kordea galduta.

Aitak hartu zuen itsasoak ekarritako soka lodi haletako bat, eta niri luzatu zidan muturretako bat.

–Eutsiok gogor horri! –esan zidan.

Eta sokaren beste muturra gerrian lotu ondoren, itsaso haserre hartara egin zuen murgil, oholzaren gainean zetorren gizon harengana.

Itsasoarekin borrokan, oholtza hondartzaraino hurbiltzea lortu zuen. Labar-ertzera ekarri zutenean, uretan galdutako gizonak begiak ireki zituen.

–Salba nazazu itsasoaren haserretik! –egin zuen oihu.

JOSE MARI OLAIZOLA «Txiliku», *Osaba Bin Floren* (moldatua)

1 Erantzun.

Zein da kontakizuneko aita-semeen egitekoa lurmuturrean? _____

Zer hondamendi gertatzen da kontakizunean? _____

Zenbat pertsonaia azaltzen dira kontakizunean? Zein dira? _____

Zer eskatu zuen salbatu zen marinelak? _____

2 Idatzi definizio bakoitzari dagokion hitza era, ondoren, bilatu letra-zopan.

Itsasoan
barneratzen den lur-zatia: _____


Oso azkar
biratzen duen ur-masa: _____

Bertikala edo ia bertikala
den itsasertzeko haitz-ebakia: _____

Apar: _____

Harea: _____

Upel txikia: _____



3 Ea asmatzen duzun testuko hitz hauekin esaldietako hutsuneak betetzen.

danbateko kirrinka karraska

Z	F	A	M	L	A	B	A	R	I	F	O
B	E	B	A	U	E	R	A	I	K	I	N
I	B	A	R	R	I	K	A	Z	E	H	A
R	I	U	W	M	L	I	T	U	S	O	L
R	Y	T	E	U	E	D	D	T	N	N	O
I	Z	O	T	T	U	Z	I	A	U	D	A
Z	U	R	R	U	N	B	I	L	O	A	E
G	O	N	B	R	T	A	T	R	N	R	A

Ontziak, puskatzean, _____ izugarria atera zuen.

Ateak, zabaltzean, _____ desatsegina egiten du.

Ateari _____ bat emanez joan zen.